

Erakusleiho versus Lantegi



ENEKO OLASAGASTI
ZUZENDARIA
ETA GIDOIGILEA

Edo idatz nezakeen ere *Publiko vs Privat*, *Amateur vs Profesional*. Etaurretik joan bedi ez dudala ezer ere erakusleiho, lantegi, publiko, pribatu, amateur edo profesionalen aurka. Are gehiago, uste dut denak direla beharrezko modazko hitzak, *Ekosistema Kulturalak* deritzon horretan. Ekosistema hitzak nolabaiteko oreka dagoela adierazten du. Eta munduko ekosistema hankaz gora dagoela dirudien honetan zer esanik ez, Kulturala abizena ipiniz gero. Eta Lurrekoaren sunsiketaren kontra borrokatzen dutenen antzera ekologista kultural temati bihurtzekotan nagoela uste dut, errepikatzen naizela alegia.

Donostiako Olatu Talkak bereak egin duela dirudi, hamar urte eta gero. Eta egia esaten badut ez dit min handirik ematen. Ez hainbat donostiarrek egingdako lan boluntarioarengatik, baizik eta horretan bakarrik oinarritu izan delako, profesional bakan batzuen laguntzarekin. Horrelako muntaia erraldoiaren antolaketa ordaindu beharko balitz ez zelako egingo. Doako kultura, berriro, dohainik egina. Bestelako erakustaldiekin, Olentzero, Errege Kabalkada, berdin gertatzen da. Bilbon antzerki konpainien esku uzten dituzte.

Eta nahita aipatu dut Bilbo. Izugarriko inbidia sentitu dudalako orain egun gutxi Arriaga Antzokiak hurrengo urteko bere programazioa aurkeztu duenean. Zeren konpainia pribatuen antzeppenak erakusteaz gain euren ekoizpen propioak toki handia hartzen duelako. Eta tokia hartzen badu egin egiten delako da. Bertako antzezle eta zuzendariekin, talde bateko izan zein besteko, aldi batzuk aldi bat bestek. Eta horrek lana emateaz gain giroa sortzen baitu, kultur bizitza. Eta modu pribatuan ekoiztu ezin diren lanak aurrera ateratzeko aukera sortu. Donostian ezin du ez delako ezer ekoizten. Eta Gasteizen berdin. Iruñean ez ordea. Gayarre Antzokiak ekoizpen propioak egin izan ditu. Bilbo eta Iruñea lantegi eta erakusleiho dira eta Donostia eta Gasteiz erakusleiho hutsak. Hau izan da betidanik Donostiari egotzi zaiona eta ez du ematen aldatzeko trazarik duenik. Dirua kostatuko lukeela horrek? Noski. Baina baita hondartzak garbi edukitzeak, sorosleei ordaintzeak... Su artifizialak debaldekoak al dira, bada? Erakusleiho izatera kondenaturik dago Donostia? Kultura sortzea berdin zaigu, nahikoa dugu pribatuan sortzen dena erakustearekin. Jakina, sortzen ez dena ezin erakutsi. ●

Kontsumoaren egitura fraktala



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Bizitzak itxura fraktala izaten du maiz: egitura baten barruan egitura berdina errepikatzen da eskala txikiagoan.

Lan-kontsumo eta lan-zaintza "kontsumo gutxiago" zikloak astero betetzen dira. Lan hori soldataren truke soilik egiten dela azaltzen duten arrazoiek eta zaintzaren zati inposatuak gure gorputz eta bizipozean eragiten duten higadura jasateko ihespuntu ezinbestekoa da kontsumoa. Gailu elektronikoak edo mendiko arropa *fancy*-a erosi, afari erromantikoa jatetxean edota parranda. Antidepresibo, kreditu txartel, alkohol eta kokainari eragintzatutako gizarte eroa.

Aldi berean, esklabotasun modernoaren presio balbula horiek zikloaren eragile dira, kontsumo hori mantentzeko beharrrak eramatean baigaitu astelehenean iratzargailuari obeditzera.

Urrunagotik begiratu gero, egitura berdina ezarri diogu urteari. Hipoteka eta gaupasarekin batera, turismoa da 40 orduz loteria irabaziz gero egingo ez genituzkeen jarduerak egitera eramatean gaituen tranpa. Tranpa diot, gutxienez urtean hirutan euskal herritik irtetearen behar hori ez delako ere oso hautu libre.

Hau noski, klase ez hain baxuko nati-bo zurien erretratua. ●